



## IKTUS UNITATEAN INGRESATUTA DAUDEN PERTSONEN

### LAGUNTZAILEENTZAKO INFORMAZIOA

IKTUS bat izan eta ospitalean ingresatuta dagoen pertsona bati laguntzen ari zara.

Horren eraginez, zaintza eta arreta bereziak behar ditu pazienteak. Arreta horiek orain zaudeten lekuan emango zaizkio, IKTUS unitatean, gertakariaren osteko lehen orduetan. Unitate honetako erizaintza-taldea arduratuko da arreta horiek emateaz.

Unitate honek egoera berezi batzuk ditu:

- Ohe bakoitzak bideokamera bat eta monitorizazio hemodinamikorako sistema bat ditu, erizainek ondoko kontrolgunearen bidez pertsona bakoitza gertutik zaindu ahal izan dezaten. Jakin behar duzu sistemak irudiak ikusteko aukera ematen duela, baina ez soinuak entzutekoa.
- Gela berean sexu desberdineko pertsonak egon daitezke. Oheen arteko gortinaren bidez bermatuko dugu ospitaleratutako pertsona bakoitzaren duintasuna eta pribatutasuna.
- Geletan ez dago ez telefonorik ez telebistarik.

IKTUSa izan duten pertsonen beharren ondorio dira berezitasun horiek. Gainera, paziente ingresatu berriek guztien artean eskain diezaiekegun atsedeen fisiko eta emozional guztia behar dute. Alde horretatik, eskatzen dizugun atsedeen- eta zaintza-ingurune hori sortzeko arau batzuk ulertzea eta aplikatzen laguntzea era aktiboan, lehen ordu hauetan oso garrantzitsua baita hori.

- Kanpoko estimuluak txikitzearen, ezinbestekoa da zaratak ahalik eta gehien txikitzea. Hortaz, isilarazi zure mugikorra, ez hitz egin ozen eta ez erabili irratirik.
- Bisitei dagokienez, paziente bakoitzak bisitari bakarria izatea gomendatzen eta baimentzen da. Beharrezkoa da pertsona horrek isiltasuna errespetatzea eta ahalik eta estimulazio gutxien sortzen laguntzea, pertsonak une oro gelan sartzen eta irteten egon gabe.
- Pazientearekin zauden bitartean eman lehentasunaren atsedearik. Ulertzen dugu egoera zaila dela, eta zalantza eta galdera asko sortuko zaizkizuela. Unitateko langileak saiatuko dira guztiak argitzen. Mesedez, erabili txirrina laguntza eskatzeko, gelako sartu-irtenak saihestuko baitira hartara.



- Unitateko langileek, gainera, egin beharreko guztia egiten lagunduko dizute. Zuk egin baino lehen, eskatu bertan izatea.
- Ez eman urik eta/edo beste likidorik edo janaririk IKTUS bat izan berri duenari. Baliteke IKTUSAREN kalte zerebralak irensteko zailtasunak sortu izana, eta beharrezkoa da taldeko profesionalak ebaluatzea janaria kontrako eztarritik joateko arriskurik ba ote den.
- Utzi ingresatuari atseden osoa hartzen. Momenturen batean altxatu nahiko balu, eskatu langileen laguntza hura mugitu aurretik.

*IKTUS unitateko erizainak uneotan ingresatuari laguntzeko eta prozesua errazteko gaude, ahal dugun heinean. Edozein zalantza edo zerbitzua hobetzeko edozein iradokizun baduzu, esan lasai. Gure arreta hobetzeko aukera emango digu. Eskerrik asko arau hauek errespetatu eta betetzeagatik, ezinbestekoak baitira IKTUS bat izan berri duen pertsonaren errekuerazioa bideratuko duen giroa sortzeko.*

IO-NEUROLOGIA-02